

Borondatezko lana, pertsona orori zabaltzen zaion atea



ALBOAN



Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

Aurkezpena

Gero eta gehiago ohartzen gara gizon-emakumeok mundu globalizatu batean bizi garela, hemen egiten dugun edozerk beste nonbait ere izan dezakeela eragina. Ohartzen gara, halaber, ezinezkoa zaiela munduko herritar askori gurearen moduko bizimodurik izatea. Hori dela-eta, nazioarteko elkartasun- edo lankidetzaproiektuei ekiteko premia nabaritzen dugu.

Batzuetan, ordea, lankidetzagogo hori ez da ekintza eraldatzaile bihurtzen, ezaupide-ezagatik, informazio-iturririk ez edukitzeagatik eta abarreatatik.

Gida eta erakusketa honen bidez, baliabide eta jarraibide batzuk eman nahi dizkiegu gai horiek arduratzen dituzten gizon-emakumeei, konpromiso iraunkorra eta ekin jarraitua izan dezaten nazioarteko elkartasun-gaietan.

Eskuetan duzun gida honen helburua da laguntzea gaiari lotzen, hausnarketarako ideia batzuk proposatzea, eta, azkenik, bibliografia eta Interneteko helbideak ematea, interesaturik daudenei lagungarri izango zaizkielakoan.

Erakusketako paneletako ideien osagarri duzue gida hau. Hona hemen zer eskaintzen dizuen: boluntarioen lanak garapenerako lankidetzan izan duen garrantzia eta gaur egungo egoera, boluntarioen motibazioak eta inplikazioak, boluntarioen ekarpena nazioarteko lankidetzari, eta boluntario batzuen hausnarketak eta iritziak.

Material hau lagungarri izatea nahi luke ALBOANek, bai zuri bai zurekin dabiltzanei edo ibil daitezkeenei. Ea gero eta jende gehiago saiatzen garen mundu zuzenagoa eta duinagoa eraikitzen!





Boluntarioen lana ez da atzo goizeko kontua

Etengabekoa izan da gure historian zehar gizon-emakumeen, herrien eta erakundeen arteko lankidetzak. Denboran oso atzera egingo bagenu ere, aurkituko genuke jenderik beste era bateko harremanak eta beste era bateko mundua erakitzen saiatzen zenik, horretarako lan egiten eta proposamenik plazaratzen zuenik.

Askotan, jendearen borondate hutsaren ondorio izaten zen lankidetzak, besteenganako elkartasun-sentimenduaren eta arduraren fruitua, edo egoera jakin batean bizi eta hura aldatu nahi izatearena.

Horra, bada, garapenerako lankidetzaren hastapenak. Boluntarioen lana, berriz, hasiera-hasieratik nabarmendu da lankidetzak horretan, eta haren ezinbesteko osagaia izan da. Edozein zelarik ere garapen-eredua edo -proiektua, funtsezkoa izan da beti boluntarioen lana.

Horretan aritu edo aritzen diren militante edo boluntarioak, berriz, garaian garaiko kezkei atxikitako jendea dira. Haiei esker eraiki izan dira erakundeak, baita ekimenak eta proposamenak gauzatu ere. Borondatezko lanari buruzko ikuspegia nolakoa, halakoa izan da historian zehar boluntarioen inplikazioa eta garapenerako lankidetzak mugimenduaren garrantzia. Jende asko borrokatu eta saiatu izan da –misiolariak, brigadistak, gaur egungo boluntarioak...– lankidetzaren historian.

Hortaz, betidanik egon izan dira harremanak Iparraldeko eta Hegoaldeko erakundeen eta gizon-emakumeen artean, boluntario gisako harremanak haietako asko. Gero eta konplexuagoa, definitzeko zailagoa bihurtu da boluntario-lana (Hegoaldeko edo iparraldeko herrien aldeko lana), garapen-proposamenak eta gizarteko erakundeak konplexuago egin ahala. Hasieran, boluntarioen lana jakintzaren transmisioa izaten zen batik bat; gaur egun, aldiz, gizon-emakume bakoitzak bere esperientziaren eta bizipenen arabera ekarpena egin dezake. Denek daukate zer eskainia garapenera berri bat eraikitzeko lanean, eta denei entzun behar zaie. Era berean, unean uneko eginkizuna izatetik (kontzientziaren lasaigarri moduko bat) bizi-konpromiso izatera igaro da boluntario-lana, bizitzeko modu bat, militantzia bat, munduko gizon-emakume guztienganako ardurak eragindako konpromisoa denok bizimodu duina eta zuzena izan dezagun. Dena dela, unean uneko boluntario-lana (kontzientziaren lasaigarria) ari da bultzatzen berriro leku askotan.

Informa zaituz, zure herri edo auzoan, ipar eta hegoaldean, egin diren boluntarioei buruz.

Bisita itzazu erakunde sozialak, eliza, etab. eta konta ezazu bertako pertsona boluntario eta zure herriaren arteko harremana nolako izan den.



Badute elkarrekin loturarik boluntario-lanak eta lankidetzak?

ALBOANen gabiltzanon iritziz, garapenerako lankidetzak truke-harremana da, gizon-emakume guztientzako garapen duin eta zuzenaren alde egitea. Hainbat alderdi ditu harreman horrek: teknikoa, ekonomikoa, baita gizatiarra ere (gizon-emakumeen, herrien eta kulturen arteko elkargune izatea, alegia). Uste dugu, bada, boluntario-lanak ematen duela –hein handi batean– pertsonen eta erakundeen arteko elkargune-ikuspegi hori. Berririo diogu: gizon-emakume guztientzat garapen zuzena eta duina lortzen saiatzea du helburu elkartze horrek.

Alabaina, gaur egungo garapenerako lankidetzak badu beste ezaugarri bat: gero eta gehiago da eginkizun profesionala. Jakina, laguntzen diegun gizon-emakumeen egoera hobetzea du xede lankidetzak profesionalago horrek ere, haien injustizia-egoerak aldatzen laguntzea. Profesionalizatzeko beharrezkoa delakoan gaude, eta horretaz jabetu beharra daukate bai GKEk bai boluntarioek.

Gure iritziz, boluntarioen lanak bi onura dakartzkio lankidetzari: batetik, kutsu ‘gizatiarragoa’ ematen dio, kulturen arteko elkartze-tankera; bestetik, ‘doakotasunaren kultura’ (horixe da, hain justu, boluntario-lanaren ezaugarri nagusia). Elkartasun- eta eskuzabaltasun-dosi handiak eramaten dituzte boluntarioek Hegoaldera, hango herritarren duintasunaren alde lanean ari direnen lagungarri eta euskarri. Ezinbestekoa deritzogu kultura horri aldarrikatzen dugun giza garapenari ekiteko.

Uste dugu, halaber, nazioarteko lankidetzak hainbat alorretan landu beharrezkoa dela. Boluntario-lana du alor horietatik ‘berezkoenetako’ bat. Hegoaldeko herrialdetan egiten den boluntario-lanak, bada, koherentzia eta elkarrekiko lotura ematen die GKEren jarduerari, bai Iparraldean bai Hegoaldean. Bitartekari-lana egiten du gehienetan boluntarioak, Iparraldeko eta Hegoaldeko jarduera, jende eta erakundeen arteko zubi- edo harreman-lana. Horregatik, oso lagungarri zaie boluntario-lanaren esperientzia bai boluntarioari berari, bai haren erakundeari, hura bizi den komunitateari eta, etxera itzultzean, bere jatorrizko komunitateari ere.

Orain, informa zaitez, zure herri edo auzoan boluntarioen bat badagoen, gaur egun, hemen edo beste herrialde bateko nazioarteko elkartasun erakunderen batean parte hartzen duena. Zein da bere istorioa?



Badugu nahi adina arrazoi

Edozein motibaziok balio du boluntario-lanari ekiteko? Beste hitz batzuekin esanda, berez ote da ona boluntario-lana?

Gure iritziz, kontuan hartu behar dira boluntario izateko dauden motibazio eta interes guztiak, eta beldurrik gabe aztertu. Era askotako arrazoiak bultzatzen dituzte gizon-emakumeak boluntario izatera. Arrazoi batzuk guztiz idealistak, altruistak iruditzen zaizkigu; beste batzuk, berriz, 'errealistak' edo 'interesatuak'. Azkena aipatu horiek ez ditugu batzuetan ongi bereizten eta atzematen, ongi ikusiak ez daudelako, besteek esango dutenaren beldur garelako...

Hona hemen boluntario izateko motibazio edo *arrazoi idealetako batzuk*, jendaurrean azaldu ohi direnak eta erakundeen ideia-zerrendan agertu ohi direnak: "...mundua aldatzea, egitura injustuak aldatzea, justizia soziala aldarrikatzea, elkartasunean haztea, gizon/emakume hobea izatea, guztien ongiaren alde jardutea, beste jende, kultura eta bizimodu batzuk ezagutu eta haietatik ikastea, gizartetik baztertuta bizi direnei hurbiltzea...". Horiez gain, arrazoi ideologiko eta erlijiosoak ere aipatu ohi dira.

Hona hemen beste motibazio edo arrazoi erreal batzuk, boluntario-lanetan gure denbora eta ahalegina erabiltzera bultzatzen gaituztenak horiek ere: "...denbora librean nolabait betetzea, zerbaitetarako gai sentitzea, ongi sentitzea, besteengatik eta nire buruagatik zerbait egitea, etxean aspertuta ez geratzea, beste batzuekin harremanetan jardutea, bakarrik ez geratzea ('lagun guztiak dabilza hor'), kuriositateagatik, depresioak jota nago (terapia gisara), nobedadeagatik, familiak bultzatuta..."

Ez dago zertan jarri arrazoi batzuk besteen aurka. Batzuk eta besteak hor daudela ohartzea da kontua. Aurreiritzirik gabe begiratu behar diegu motibazioei, egiazkoak zein diren aztertu, eta gai izan behar dugu bereizteko batzuk eta besteak, baita bakoitzak daukan garrantzia antzemateko ere. Batzuetan, izan ere, guri ematerik ez daukan zerbait eskatzen diegu boluntario-lanari.

Aitor dezagun zerk mugiarazten gaituen, zein diren gure egiazko arrazoiak. Ez dira besteenak baino hobeak edo okerragoak: **ARRAZOIAK DIRA**, eta kito! Hortik aurrera, hausnar dezagun boluntario aritu nahi dugun edo ez, nolakoak nahi dugun izatea boluntario-esperientzia hori, eta zertan nahi dugun aldatzea esperientziak bai gu bai besteak.

Nolanahi dela ere, gerta liteke boluntario izatera bultzatu gintuzten arrazoiak, denboraren poderioz, aldatzea, elkartasun-eta doakotasun-jarrerak gureganatzea, eta jarrera berri horiek izatea gure boluntario-lanaren euskarriak luzaroan.

Zure ustez, zerk bultzatzen du gizon/emakume bat boluntario izatera?
Uste duzu edozein arrazoi dela zilegi?

Zure iritziz, alda daitezke motibazioak denboraren poderioz?
Aldatu behar dute?

Aztertu motibazio ezberdineko hainbat jende, eta hausnartu denek boluntario izan behar duten, edo ez.



Boluntarioak: estralurtarrak ala jende arrunta?

Edozein izan daiteke boluntario; ez dago 'berezia' izan beharrik. Denbora, jakintza, esperientzia... emateko prest ego-
tea, besterik ez da behar; azken batean, mundua aldatzeko ekinean beste batzuekin elkarlanean aritzea.

Bakoitzak bere ekarpena egiten du, norberaren nortasun eta jatorriaren arabera, baina denei ematen zaie ongietorria
borondatezko lanean.

Boluntario izateak berekin dakar:

- askatasun osoz ekitea boluntario-lanari;
- bere denbora, jakintza eta esperientzia dohainik ematea;
- gizartearen alde diharduen erakunderen batean aritzea;
- beste balio, kultura eta ardura batzuk dituzten gizon-emakumeekin elkarlanean aritzea denentzako gizarte dui-
nago baten alde.

Normalean, boluntario-lanean aritzeak areagotu egiten du hainbat gairekiko sentiberatasuna, ikasi egiten da beste
pertsona batzuekin harremanak izaten... Ikaskuntza horiek guztiek eragina izaten dute boluntarioaren bizitzarekiko
jarreran, eta gero eta konprometituagoa bihurtzen da.

Sarritan, boluntarioak herritar konprometitu bihurtzen dira, baita kontsumitzaile arduratsu ere, gai lokalen eta globalen
arteko elkarreraginaz ongi jabetzen diren gizon-emakumeak.

Aldi berean, jakin-nahia sortzen zaio boluntarioari, ikasteko gogoia, beste pertsona batzuekin ikaskuntzak, esperien-
tziak eta metodologiak partekatzekoa, denentzako mundu duina eta zuzena eraikitzen lagungarri izango zaizkionak.



“Boluntario izateak herritar babesgabez arduratzea dakar, betekizunak eta eskubideak aldarrikatzea norberarentzat eta besteentzat (batez ere eskubiderik aitortzen ez zaienez). Boluntario izatea da bizitzeko moduko munduaren alde aritzea, baina ez ahaltzuentzako eta bere buruez baliatzen direnentzako mundua bakarrik, baizik eta babesgabeak eta gizarteko ahulenak ere aintzat hartuko dituen. Hartara, elkartasunean jardunez, herritarrek are gizakiago sentitzen dira” (Ximo García Roca).

“Boluntarioa: Lan edo zerbitzuren bat bere borondatez egiteko prest dagoena, dagokion txandaren zain egon gabe, besteek aginduta edo txanda dagokielako aritzen direnak ez bezala” Diccionario de la lengua española (RAE).

- Zer deritzezu boluntario hitzaren definizio horiei?
- Badago loturarik, zure ustez, boluntario-lanaren eta eguneroko bizimoduaren artean?
- Boluntario-lanak badu loturarik politikarekin? Eduki behar luke?
- Zer dakar, zure ustez, boluntario izateak?





Boluntario-lana: bakarka edo taldean?

Lehendik ere esan dugunez, gizarte-erakunderen batean egiten da boluntario-lana. Erakundearen helburua da aldatzea injustiziak eta desberdintasun sozialak eragiten dituzten egoerak, bai tokian tokikoak bai mundu osokoak. Horrenbestez, boluntario lana beti da besteekin batera, erakunderen batean, egin beharrekoa.

¡Baina boluntario-lana ez da soilik une jakin batean –edo epe jakin batean– egiten den halako ekintza. Gure lana erakundearen proiektu orokor bateko parte da; gure ekarpena prozesu zabalago baten baitakoa da, injustizia-egoerak aldarazteko prozesuaren baitakoa, alegia.

Hortaz, boluntario-lana:


- **Erakunde sozial** baten proiektuaren parte da. Ekintza-multzo baten arabera da. Elkarren artean osagarriak dira ekintza horiek, baita beste erakunde batzuetakoekin ere. Ekarpenean baina aldi berean garrantzitsua da boluntario-lana, testuinguru global honetan asko baitago egiteko.
- Ez da bakarrik zauriak sendatze, prozesu jakin batzuei laguntzea edo autonomiak sustatzea: **injustizia soziala ezabatzea du helburu**.
- **Mugez gaindi igarotzen da**. Gure talde sozialekoak ez bezalako egoera sozialetan murgiltzen da, irten egiten da gure lagunaren eta senitartekoen 'barruti itxi' horretatik, gure maila sozial eta kulturaletik. Lana egiteko era horrek hainbat ondorio eta baldintza dakar berekin: segurtasuna galtzea, beste bizimodu eta harreman-mota batzuk ikasteko eta ezagutzeko prest egotea, aurkitzen dugun egoerarekiko sentibera izatea...



Eginkizun jakin batean egiten den boluntario-lanak honako osagarri hauek behar ditu:

- **Trebakuntza:** lanean buru-belarri murgilduta dabilen boluntario orok ongi daki ez dagoela emaitzarik baldin eta ez badago ahaleginik eta irmotasunik, ez bada lana gogotik egiten, ez bada ordu asko sartzen eta, batez ere, ez badago hobetzeko eta ikasteko gogorik. Honelakoa izan behar du trebakuntzak:
 - Lanean aritzeko trebakuntza
 - Konpromisoaren aldeko trebakuntza edo hezkuntza
- Norbera dabilen erakunde, eremu edo lan-sektorearen martxan **parte hartzea**, baita eremu horretako politika publikoak eratzea ere.
- Lanean ari den **persona bakoitzaren eta guztien egoerarekiko sentibera** izatea, baita erakunde sozialen lanarekiko ere.

Begiratu, erakusketa-panelean, hainbat hitz margotuta dituen pareta. Zer jarrera edo balio lehenetsi behar dira, zure ustez, boluntario-lanean? Besteren bat gehituko al zenuke?





Zer egin dezake, ordea, boluntario batek?

Nazioarteko lankidetzaren baitako boluntario-lanaz mintzo garela, jende askori etortzen zaio burura honako hau: hegoaldeko herrialdeetan egiten den lana. Hori egia izanik ere, egiaren zati bat baino ez da. Iparraldeko erakundeetan ere jende asko dabil lanean, ongi baitakite boluntarioek txanpon beraren alde biak direla Iparra eta Hegoa, batean egiten dena estu loturik dagoela bestean egiten denarekin, elkarren eraginpean daudela bata eta bestea.

Bi lan-eremuak dira ezinbestekoak gaur egun denon artean mundu zuzenagoa eraikitzeko, munduko jende gehiena egoera hain negargarrian daukaten egiturak eta bizitzeko erak aldatzeko.

Boluntario-lanerako dauden hainbat aukera azalduko dizkizuegu, lankidetzaren esparrukoak betiere. Gure asmoa ez da guztien berri ematea, baizik eta ideei orokor batzuk azaltzea. Horiei buruz xehetasun gehiago jakiteko, alor horietan diharduten erakundeetara jotzea duzue egokiena.

Iparraldean...

- Sentsibilizazio-kanpainak, hitzaldiak, tailerrak, mintegiak, ikastaroak...
- Erakusketak prestatzea eta dinamizatzea.
- Hezkuntzarako materialak eta proposamenak prestatzea eta argitaratzea.
- Erakundearen hezkuntza- eta garapen-proiektuen berri ematea.
- Dokumentazio- eta argitalpen-zerbitzua (baliabideen zentroa, irudi-bankua...).
- Ikerkuntza.
- Bidezko merkataritzaren aldeko ekimenak bultzatzea eta horien berri jakinaraztea gizarteari.
- Hegoaldean egiten ari diren garapen-proiektuen kudeaketa eta segimendua.
- Erakundearen kudeaketa, administrazio eta logistikako lanak.
- Bazkide gehiago gureganatzea.
- Baliabide ekonomikoak, publizitatea eta abar eskuratzea.
- Presio politikoa eta salaketak egitea.
- Itzulpenak.

Hegoaldean...

Honako lankidetzak- eta truke- jarduera hauetan aritzen gara:

- Nekazaritza eta abeltzaintzako programetan.
- Azpiegiturak eraikitze eta ekipatzeko proiektuetan.
- Erakundeak, kooperatibak, sareak... sendotzen.
- Produktuak merkaturatzen.
- Hezkuntza-proiektuetan: helduak alfabetatzen.
- Ikerkuntza- eta dokumentazio-lanetan.
- Larrialdi-egoeretan laguntzen eta laguntza humanitarioa banatzen (hondamendi naturalak, goseteak, lehorteak...).
- Hiri- eta landa-komunitateak sustatzen.
- Laguntza teknikoa ematen.
- Osasun- eta ingurumen-programetan.
- Haurrei laguntzen: hezkuntza, osasuna, aisia, kalean bizi diren haurrak bergizarteratzen...
- Bizilekuz aldatu behar izan dutenekin eta errefuxiatuekin lan egiten.
- Komunitate indigenak sendotzen.
- Gazteria sustatzen.
- Emakumeak sustatzen.
- Giza eskubideak sustatzen.
- Irratsaioak egiten.

Eta beste hainbat eta hainbat eginkizunetan...



Laburbilduz, besteei ematean datza boluntario-lana...

Boluntarioa da bere borondatez hau guztia besteei ematen diena:

- **bere burua eta lanerako prestasuna.** Bere denbora eta indarrak besteen esku jartzeaz gain, elkarrizketarako ere prest izaten da boluntarioa. Munduaren oinazearekiko sentibera izan behar du boluntarioak, eta hausnartu egin behar du oinaze horretan daukan erantzukizuna, aldaketei ekiteko bere biziaren ere.
- **denbora eta lanerako gogoia,**
- **prestakuntza,**
- **ikasteko gogoia,**
- **lana ongi egiteko grina,**
- beste pertsona batzuen egoerarekiko **sentiberatasuna**, eta **beste pertsona batzuk sentsibilizatzeko gaitasuna**,
- **konfiantza herriengan eta gizon-emakumeengan**, hau da, ziur egotea batzuek zein besteek badutela gaitasunik egoera makurretatik irteteko eta beren gizarteak eta kulturak sustatzeko.
- **besteekin harremanetan jarduteko beste era bat.**

Laburbilduz, boluntario izatea da erabat besteenganako izatea, bestelako mundu bat eraikiz joateko, non garapena, justizia eta duintasuna denen eskura dauden.

Gizartea aldatzea, sentiberatasuna, parte harztea, konfiantza besteengan, elkartasuna... benetan uste duzu hori guztia ematen dizula boluntario-lanak? Zenbat ematen dizu?

- Zer ekarpen gehiago aipatuko zenituzke, zeure edo beste batzuen esperientziaren arabera?,
- Ekarpen negatiborik badela uste duzu? Zein?

baita jasotzean ere

Bizi-esperientzia aparta da boluntario-lana. Elkartzeak eta banantzeak, pozak eta penak, hainbat emozio eta sentimendu metatzen dira esperientzia horretan, eta, gehienetan, guztiz positiboa izaten da balantzea.

Boluntario izandakoek diotenez, esperientzia horrek honako ekarpen hauek egin dizkie:

- balio eta konpromiso berberak dituen jendea ezagutzeak eta haiekin lan egiteak dakarten **nortasun-aberaste eta -haztea**.
- **benetako harremana** mundua ikusteko, aztertzeko eta hartaz gozatzeko beste modu batzuekin. Batzuetan, kolo-ka jartzen dute beste modu horiek gure izaera, baina 'gizatasun-sentimendu' berbera dugu haiek eta guk.
- **harreman hurbila eta beroa jendearekin**. Kultura eta testuinguru desberdinetan bizi arren, elkar onartzen eta ezagutzen ikas daiteke, batere irizpide kritikorik gabe onartzen diren estereotipoak eta aurreiritziak alde batera utzita.
- **beste ohitura batzuen jabe egitea, beste trebezia batzuk eskuratzea**, horren bihozgabe ez izatea eta norberaren nahiz besteen giza kalitatea hobetzea. Bizitzeko era berri horiek gureganatu eta eguneroko bizimodu bihurtu behar ditugu, egoera guztietan: familia eta lagunekiko harremanetan, lantokian, ikastetxean, auzoan, enpresan, elkartean... Orduan hasiko dira orokortzen lehen partzialak ziren jarrerak ('ordukako boluntario-lana'), eta boluntarioaren bizitza osoan eragingo dute, baita haren bizimodua erabat aldaraziko ere.
- eginkizun garrantzitsu eta funtsezkotzat bizitzea **elkartasun-konpromisoa**. Etengabe motibatuko gaitu konpromiso horrek, eta gure eguneroko bizimoduan itsatsiko da.

Zer deritzozu boluntario-lanaren 'emate-jasotze' esperientziari? Zure ustez, neurri berean ematen eta jasotzen da? Zer egiten da gehiago, eman ala jaso?

Zure ustez, zer ezinbesteko ezaugarri behar ditu boluntario-lanak boluntarioaren bizitza aldatzeko eta 'pobrezian murgiltze' hutsa ez izateko?

Zehatz-mehatz, zer ekarri dizu zuri boluntario-lanak? Zer ekarri die ezagutzen dituzun boluntarioei?



Hona hemen zer dioten boluntarioek

Hemen dituzu Iparraldean nahiz Hegoaldean boluntario ibilitako hainbat lagunen adierazpenak:

"Alde batetik, boluntario izate hutsa, besteei dohainik laguntzea eta elkartasuna eskaintzea bizitzeko era bat da niretzat. Bestetik, beste leku eta kultura batzuk ezagutu nahi nituen, haien irakaspenei eta ikuspegiei esker (eta ez soilik Iparraldeko ikuspegia) beste era bateko gizakia izaten lagunduko didatenak, gizartea aldatzen eta kontzientziatzen ahalegintzen den pertsona. Azkenik, nire sinesmenek ere badute zerikusia boluntario izatearekin. Jesusen deia sentitu nuen, nire bizitzaren parte handi bat boluntario-lanari eskaini niezaion esaka. Jesusek zeregin horretan nahi ninduela sentitu nuen".

"Izugarrizko giza heldutasuna eman dit boluntario-lanak, asko handitu zait besteen egoerarekiko sentikortasuna; orain, askotan, gauzak kontatzen dizkidatenean, barnean min egiten didatela sentitzen dut."

"Boluntarioak gara eta lan/bizitza hau hautatu dugu pribilegiadunak sentitzen garelako beste jende askorekin alderatuta... "Guk gure bizitzako 'langa gurutzatzea' erabaki dugu, bi urtez beste aldeko bizitza (Euskaditik hamar ordura besterik ez, hegazkinez) ikusteko, sentitzeko, usaintzeko, entzuteko eta bizitzeko, hots, bizitzeko beste modu batzuk ere badaudela jakitun izateko".

"Boluntario-lanak gauza bat erakutsi dit, batez ere: pazientzia edukitzea. Esan nahi dut boluntario-lanari ekiten zaionean dena di-da batean egiteko gogoekin sartzen dela jendea, diren baino errazagoak ematen dutela gauzek. Pausoak pixkanaka ematen dira, poliki-poliki; horregatik da garrantzitsua gure urratsetatik haratago ikusten jakitea".

"Zalantzarik gabe, gizatasun aldetik izan dudana hazkundera azpimarratuko nuke. Orain, askoz ere segurtasun handiagoa dut nire buruarekiko, konpromiso sendoa dut gizarteko sektore baztertuekin, inork maite ez dituenekin, otoitzetan inork gogoratzen ez dituenekin, abandonatuta bizi direnekin, inor ez daukatenekin".


"Batez ere, bestela ezagutuko ez nituzkeen hainbat egoerarekin harremanetan jartzen nau boluntario-lanak. Poz handia ematen dit ikusteak horrenbeste jende saiatzen dela gauzak aldatzen eta pentsarazten dit nire ekarpen txikiak ere lagun dezakeela zeregin horretan".

"Munduan dauden beharrak ikusirik, enpatia hutsak ez du balio: inplikatu beharra dago. Gero, norberaren irizpideen, premien eta abarren arabera, zein taldetan jardun hautatu behar da. Honako esaldi honek adierazten du gure boluntario-lanerako grina: 'agian, pertsona bakar baten parte-hartzea nahikoa izango da elkartasunak munduan bere bidea egin dezan'."

"Duela bost urte hasi nintzen, aisialdirako talde batekin, astean bi orduz. Boluntario-lana ezagutu eta proiektuan murgildu ahala, gero eta gehiago inplikatzeko da jendea. Azkenik, beste urrats bat egitera, beste harmaila bat igotzera ausartzen dira boluntarioak: etxetik 9.000 kilometrora dagoen komunitate batera lanera joaten dira batzuk; beste batzuk, berriz, etxetik, LAGUNENGANDIK ETA GIRO SOZIOPOLITIKOTIK bertara dauden tokietara. OSO GUTXIREKIN BIZITZEN ere ikasten da, gizatasunean eta profesional-alorrean hazten jarraitzearen truke."

"Boluntario aritzeko ez dago heroi izan beharrik; aski da garbi jakitea zer nahi den, eta jendearekin berdintasunezko, elkartasunezko harremanak eduki izana, besteekiko loturaren onurak dastatu izana."

"Boluntario izateko, erakunderen batean aritu behar da, behar den trebakuntza jasotzeko eta lana behar bezala antolatzeko. Errazagoa da Hegoaldera iristea han lagunen bat, misiolariaren bat, edukiz gero. Baina, nolana ere, ezinbestekoa da gutxieneko antolakuntza-maila bat, behar den prestakuntza eta erakundearen babesa bermatzeko."



Horrenbestez...

- Zure ustez, zer ikaskuntza, jakintza, jarrera berri... dakartza Hegoaldean edo Iparraldean boluntario aritzeak?
- Boluntario-lanetik, zerk erakartzen zaitu? Boluntario izatea merezi duela uste duzu? Zergatik?
- Boluntario izatera animatzen bazara, aukera asko dituzu. Jar zaitez harremanetan beste boluntario batzuekin, boluntario-elkarteekin, erakundeekin... Informazioa jaso, eta ausart zaitez!
- Ondoren, bultzatu beste batzuk boluntario izatera!

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Sarean,

Leku askotan duzue informazio eguneratua boluntario-lanari buruz: hausnarketak, prestakuntza- eta lan-aukerak...

Hona hemen **Interneteko** orrialde interesgarri batzuk:

- <http://www.voluntariado.net/>
- <http://www.hacesfalta.org/index2.htm>
- http://www.iyv2001.org/iyv_span/index.htm
- <http://www.iniciativasocial.net>
- <http://www.canalsolidario.org>
- <http://www.ppve.org/>
- <http://www.bolunta.org>
- <http://www.alboan.org/topaleku>

Bertatik bertara:

Euskadiko GGKEen elkartea

Bailén 1, 2.a, 7. atea • 48003 Bilbao

Tel/Faxa: 944 15 03 00 • Helbide elektronikoa: coordongd-eus@arrakis.es

Nafarroako GGKEen elkartea

Nafarroa Beherea hiribidea, 64 • 31006 Iruñea

Tel/Faxa: 948 29 17 38 • Helbide elektronikoa: congdn@nodo50.org

Bolunta

Ronda 2 • 48005 Bilbao

Tel/Faxa: 944 16 15 11 • Helbide elektronikoa: bolunta@bolunta.org

ALBOAN

Funikular plaza, 2 • 48007 Bilbao

Tel.: 94 415 11 35 • Faxa: 94 416 19 38 • Helbide elektronikoa: alboanbi@alboan.org

Erronda kalea, 7, 4.a • 20001 Donostia

Tel/Faxa: 943 27 51 73 • Helbide elektronikoa: alboangi@alboan.org

Bergamín 32 • 31004 Iruñea

Tel/Faxa: 948 23 13 02 • Helbide elektronikoa: alboanna@alboan.org

Liburuen bidez,

ARANGUREN Luis, *Cartografía del voluntariado*, PPC, Madril 2000.

CODURAS Pedro, S.J., *Voluntarios: discípulos y ciudadanos*, Cuadernos Cristianisme i Justicia, 68. zk.

FALCÓN, Enrique, *Dimensiones políticas del voluntariado*, Cuadernos Cristianisme i Justicia, 79. zk, Bartzelona, 1997ko azaroa.

GARCÍA ROCA, Ximo, *Solidaridad y Voluntariado*, Sal Terrae, Santander 1994.

GARCÍA ROCA, Ximo, *En tránsito hacia los últimos. Crítica política del voluntariado*, Sal Terrae, Santander 2001.

MONTAGUT Teresa, ZUBERO Imanol, PETRUS Antoni, ORDUNA Gabriela, GARCÍA Andrés, GARCÍA ROCA Ximo, *Voluntariado: la lógica de la ciudadanía*, Ariel Sociología, Bartzelona, 2003.

Zenbait egile. *Colección A fuego lento*, Plataforma para la promoción del voluntariado en España, Madril, 2002.

Zenbait egile, *2001 Repensar el voluntariado*, Documentación Social. Revista de Estudios sociales y de sociología aplicada, 122. zk.

ZUBERO Imanol, *¿A quién le interesa el voluntariado? La acción voluntaria, entre la satisfacción y la deuda*, Cáritas Española, Madril, 2000.

